

Agurra

URRUTIA BADIOLA, Andres
Euskaltzainburua

Baionako alkateordea,
Agintariak,
Euskaltzainak,
Jaun-andreak,
Egunon guztioi, *Bonjour à tous*.

Gaur Euskaltzaindiak bere barruan hartzen du Xarles Bidegain euskalaria eta euskaltzalea, pozarren eta esker onez.

Izan ere, Xarles Bidegain jada gure artean dugu, lehen euskaltzain urgazle gisa eta orain euskaltzain oso moduan.

Baditu horretarako merezimenduak. Dialektologia ez ezik, hainbat arlo jorratu ditu berak bere bizi-zereginetan, esparru akademikoan nahiz gizar-tearen ekimenetan.

Ondo eta zehatz ezagutzen du Euskal Herria, Iparraldekoa eta Hegoaldekoa. Gure berbakera guztiak, gure euskalkiak ez zaizkio arrotz. Esan gabe doa, hori erabat lagungarri gertatzen zaiola euskararen akademiari.

Irakaskuntza eta ikerketa ditu ahalegin preziatuenak eta horretan jarraitzea nahi duela akademiak, horiek baitira berme esanguratsuak bere lan akademikorako.

Betor, beraz, Xarles Bidegain gurera eta izan ditzala gure agiantzarik onenak, Euskaltzaindian eta bizitzan, euskaldun eta euskaltzale jarraitu dezan.

Mila esker, *merci beaucoup* zuei, gaur Euskaltzaindiarekin egotearren, eta bereziki Baionako Udalarari eta herriari, gaur eskaini digun harreragatik.

Zorionak Xarlesi eta bere etxeko eta senideei eta orain joan zaitezte, Jean Haritschelhar eta Patxi Uribarren, Xarles Bidegainen bila eta gure artera ekarri, bere sarrera-hitzaldia egin dezan.